

"EZ DAGO ESKUBIDERIK!!"

Helburua: ikasleei nazioarteko merkataritza truke injustuan oinarritzen dela jakitera ematea, gelan asko erabiltzen den adierazpen bat erabiliz: Ez dago eskubiderik!

Deskribapena: gelakoan argazkitik (marrazkitik) abiatuz, gelakoan arteko harremanetan injustua iruditzen zaiguna hizpide hartuz, eztabaida egin.

Orientabideak: kamera digital bat baldin badugu, gelakoan argazki bat egin eta kopiak atera inprimagailuarekin, kide bakoitzak bere koadernoan itsatsi dezan. Marrazki bat ere egin dezakegu, edota alde zurretik egindako argazkiren bat hartu eta fotokopiak egin. Taldearen argazkia itsatsi eta denen artean oratzen dugun pankarta behatzen dugunean, asko erabiltzen dugun adierazpena dela konturatuko gara. Denen artean hitz egingo dugu, noiz erabiltzen dugun adierazteko. Une horien zerrenda bat idatz dezakegu arbelean, eta une edo egoera horiek justuak izateko alternatiba bat aurkeztu behar dugu. "Injustutat" hartzen diren gelakideen jokabideak argitu eta txatxukeriak ez esaten saiatu.

1 INJUSTUA EZ DENA

NOIZ ESATEN DUGU ZERBAIT JUSTUA EZ DELA?

Helburua: norberaren esperientziei erreparaturik, justua eta injustua zer den adierazi.

Deskribapena: erantzun pertsonala eskatzen duten galderetatik abiatuz, gogoeta egin denen artean, eta oharrak hartu.

Orientabideak: 6-7 urte arteko neska-mutilek esperientzia pertsonal eta zuzenetatik abiatuz aztertzen dituzte gai handiak. Galdetu: noiz esaten dugu ez dago eskubiderik?, eta egunero egiten dituzten injustizien zerrenda egin: etxeko arazoak, neba-arreben arteko eta gelakideen arteko liskarrak, gurasoekiko kasketaldiak... Injustuki tratatuak izan diren sentimendu-uneak denen artean arbelean idatzi. Aldi berean, galdetu: zer egin dezakegu aldatzeko?, eta beste zerrenda bat egin, konponbide egoki bana proposaturik injustizia bakoitzeko. Ikasle bakoitzak bere fitxan itsatsiko du bere argazkia edo marrazkia, eta gehien errepikatzen diren 3 edo 4 adibideen artean aukeratu.

NOIZ ESATEN DUTE BESTEEK?

Helburua: Gure inguruko jendeak bizi dituen injustiziak ezagutu eta ebaluatzea. Gurea ez bezalako errealitateak ezagutzeko interesa adieraztea.

Deskribapena: inguruari erreparatu, eta norberaren baitatik ateratzeko balio duten galderak eginez, justu eta injustu kontzeptuak zabaldu.

Orientabideak: Komentatu, gure inguruko jendeak era askotan esaten duela "Ez dago eskubiderik!" Gure familiak, lagunak, telebistako edo filmetako pertsonaiek noiz esaten duten hori kontuan hartu... (aldizkariak eta egunkariak begiratu). Neska-mutilekin bizi diren pertsona helduek jasaten dituzten injustizietatik hasi –"amatxok lan asko egiten du, baina gutxi kobratzen du", "aitatxok ez dauka lanik eta etxean geratu beharra dauka"–, eta gero telebistan ikusitako egoerak aztertu; "Gauzak saltzen dituzten haurrak ikusi ditut, eta ez dira eskolara joaten". Ikusten dutena jaso eta denen artean komentatu behar da: osasun, hezkuntza, etxebizitza eta elikadurari dagozkion arazoak aztertu (geroago, duintasunez bizitzeko janaria ez dela nahikoa adieraziko dugu). Honako galdera hau eginez, hasi elkarrizketa: Noiz esaten du amatxok ez dago eskubiderik?, eta behin elkarrizketa abiatuz gero, telebistatik edo prentsatik ezagutzen dituzten gerrak, ezbeharrak, gaixotasunak aipatu. Aukeraketa egin ondoren, konponketak proposaturik, zerrenda bat egin, eta izenburu hau atxiki: "Zertan aldatu?"

2 MERKATARITZAREN JOKOA

PERTSONA BATZUEK EKOIZTEN DUTENA EROSTEN DUTE BESTE BATZUEK


Helburua: Produktuen arteko ezberdintasuna eta, beraz, salerosketaren injustizia ezagutzeko, horrek sortzen duen injustizia soziala kontuan hartzeko.

Deskribapena: bi taldeen arteko joko desorekatu bat proposatu, "Ez dago eskubiderik" behin baino gehiagotan esanarazteko. Jokoaaren elementuak zein emaitzak kafearen –edo kotoiaren edo kakaoaren– salerosketari buruzko gutxienezko lau kontzeptu sistematizatzeko lagungarri izango zaizkie.

Orientabideak: gela bi talde berdinetan banatu, zeramikako objektuak erreproduzitzeko (paperezko edalontzitxo dekoratuak).

Zeramika-modeloak

Plantila



- 1. taldea: artaziak, errotuladoreak, plantilak, kola-tutu ugari eta orri asko dauzka.
- 2. taldea: artazi bat, errotuladoreen bat, plantila bakar bat, kola-tutu bat eta orri bakan batzuk dauzka.

Materiala banatu, eta argi gera dadila hasiera-hasieratik jokoan abiatzeko dagoen aldea.

Denbora: 15 minutu (taldearen arabera, 5 min gehiago ala gutxiago eman daitezke).

Irakasleak gutxieneko kalitatea daukaten unitateak erosi ditiu, eta prezio bat ipiniko du unitateko: 2 euro edalontzitxo bakoitzeko. Bi kafe-ekoizleren salerosketaren egoera erreala itxuratu nahi da. 2. taldeak protesta egingo du hasierako desberdintasunagatik: tresna eta material gutxiago dauzka. 1. taldeak esango du, jokalarri berdinak daudela bi aldeetan eta denbora ere berdina dela. Edalontzitxo dekoratuek kalitate berbera eduki behar dutenez, 2. taldeak oso mantso egingo du lan, eta gainera gero eta haserreago azalduko da. Ikasleek sentitzen dutena adierazteko erabilitako hitzak eta esamoldeak kontuan hartuko ditu irakasleak, gero horretaz mintzatzeko.

1. taldearen nagusitasuna eta emaitza hobek nabarmendu behar ditugu: talde bakoitzari erosi nahi dizkiogun unitateak ikusteko moduko tokian jarriko ditugu.

Talde bakoitzak ekoiztiko unitateak marraztu eta lortutako dirua buruz kalkulatu du ikasle bakoitzak. Azkenik, hainbat galdera egin behar dira:

Zergatik talde batek besteak baino diru gehiago irabazten du?: talde bakoitzak irabazten duen diruarekin gauza berberak erosi al daitezke?; zuzena al da? nola banatu beharko zen materiala?

EMAN DEZAGUN EDALONTZITXOEN ORDEZ KAFEA EKOIZTEN DUGULA?

Orientabideak: laburki bederen, kafe-landarea nolakoa den azaldu, non hazten den, zer baldintza behar dituen... Produktu hori ekoizteko behar dena ikusi behar da (pertsonek, lurra, haziak, tresnak eta makinak...), eta ekoizpen-prozesua nolakoa den. Hortik abiatuz, kafearen eta edalontzitxoaren ekoizleen arteko parekotasunak eta ezberdintasunak azal daitezke. Papera lurra da; artaziak eta kola-tutuak, makinak eta tresnak; plantilak eta errotuladoreak, ongariak. Fitxaren bi laukiak bete ondoren, behatu kafe-ekoizle bien aukerak ez direla berberak enpresa handientzat zein txikientzat.

NOR DA NOR?

Orientabideak: Jokoaren elementu guztiak identifikatu; talde bakoitza nor den identifikatu gabe dago. Era horretara jokatzuz, 1. taldeak denetatik asko daukala ikusiko da, eta enpresa handitza hartutako da (ezagutzen diren enpresa handien izenak eman daitezke), eta 2. taldeak denetatik gutxi daukanez, ekoizle txikitza hartuko da; ondoren aurkeztuko dugun protagonista, alegia.

3 JUAN, EKOIZLE TXIKIA

Helburua: elikadura jende guztiak ziurtatuta eduki beharko lukeen oinarrizko eskubidea dela kontuan hartzea. Hezkuntzak, etxebizitzak eta osasunak dirua balio dute, eta eskuraezinak dira pertsona batzuentzat.

Deskribapena: Juanen istorio txikian abiapuntua hartuz, haren kolektiboaren arazoak jabe gaitzeko. "Oinarrizko gauzak" zer esan nahi duen aztertu, gure bizitzari aplikatu eta gure lagunaren bizitzari ere bai.

Orientabideak: irakurketatik abiatuz, egindako jokoarekin konparatu. Makina gutxi eta lur gutxi dugula esaten digu; neska-mutilek prebisioak egin ditzaten saiatu: 2. taldeari gertatutakoa, bizi izan duen injustizia eta haserre, bere lanarekin lortu duen diru eskasa..., hori dena gertatuko zaio ekoizle txiki horri ere. Gela nolakoa den ikusita, 2. jardueran egindako gogoetak gure lagunaren egoera aldatzera aplika daitezke.

Zer esan nahi du gure lagunak "oinarrizko gauzak" aipatzen dituen? Ondoko galdera honi erantzun dion zerrenda egin: janariak beste, zer besterik erosten dugu diruz? Zerrenda egin ondoren, oinarrizkoak edo ezinbestekoak direnak aukeratu, zeinak eduki gabe geure bizitza ez bailitzateke duina izango: elikadura, osasuna, hezkuntza eta etxebizitza.

Elkarrizketa bat sortu oinarrizkoa zer iruditzen zaien argitzeko, iritzia azal dezatela eskatuz.

Seinalatu, ekoizle horrek eta guk badugula puntu komun bat, alegia, janaria erosi dezakegula; guk beste gauza asko eduki ditzakegula, eta, aldiz, agian beste batzuek ez. Diruz erosten ditugun gauza asko ez direla beharrezkoak: gure gelako neska-mutilek duten kontsumismo-gradua kontuan hartuz eta horren arabera, gehiago ala gutxiago landuko dugu alderdi hori, kontsumismoa eta premia bereiziz.

4 GURE ADISKIDE JUANEN IRITZIZ ERE EZ DAGO ESKUBIDERIK!

Helburua: gogoetak irau duen bitartean atera diren kontzeptuak biltzea.

Deskribapena: gure argazkiaren eta adiskide mexikarraren argazkiaren artean diferentzia batzuk daude, biek gauza bera esan arren: "ez dago eskubiderik"; beraz, bien arteko ezberdintasunak aipatu, alternatibak aurkitu eta egoera aldatzeko.

Orientabideak: oinarrizko gauzak bilduz egindako zerrendari begiratu eta adiskide mexikarra gauza horiek eskuratu ezinik dabilela kontuan hartuz, erraz ondorioztatu daiteke, haren seme-alabek ez daukatela eskolara joaterik, ez daukatela medikurik gaixotzen direnean; lana errazteko makinarik ezin erosi dezaketela, eta etxea txukuntzerik eta hobetzerik ez daukatela.

Orain arte landutako gauzen zerrenda egin, eta bakoitzak esan dezala orain arte ez zekien zerbait ikasi duen. Bakoitzak orain arte ezagutzen ez zuena atera dezan saiatu, eta aitortu gure adiskide Juanek diru gehiago lortu behar duela egiten duen lanaren truke, bizitza duina izateko. Kafe-ekoizle txikiek egiten dituzten kooperatibez, eta salerosketa justuko dende hitz egin, non kooperatibetan erositako produktuak saltzen dituzten. Bi elementu horien bitartez, kafe-ekoizle txikiak prezio duinak lor ditzake bere lanaren ordain. Azkenik, salerosketari buruz ikasi dugun guztia azaldu ondoren, guk geuk edo gure gurasoek nola lagun dezakegun/dezaketen galdetu. "Merkataritza justiziaz" izeneko kanpainan parte hartzea animatu daitezke. www.comerciojusticia.org izeneko web-orria bisitatu, posible da nazioarteko merkataritza pobrezia erazteko lagungarri izan dadin borrokatzen diren hainbat pertsonekin elkar-lana egitea.

LMHko 1. ZIKLOA

EZ DAGO
ESKUBIDERIK!



ITSATSI GELAKOEN ARGAZKI BAT

Egilea: Elvira Safont eta Gabi Torregrosa


Intermón
Oxfam



JUSTUA EZ DENA

NOIZ ESATEN
DUGU "EZ DAGO
ESKUBIDERIK"?




EBAKI ZURE
ARGAZKI BAT

EZ DA ZUZENA...

ZER EGIN DEZAKEGU
ALDATZEKO?

NOIZ ESATEN
DUTE HORI
BESTEEK?



EBAKI ETA ITSATSI
ARGAZKI BAT

HAU ERE EZ DA
ZUZENA!

ZER ALDATU
BEHAR DA?

2 MERKTARITZAREN JOKOA

PERTSONA BATZUEK EKOIZTEN DUTENA EROSTEN DUTE BESTE BATZUEK



EGIN ZURE TALDEAREKIN AHAL DITUZUN PAPERETZKO EDALONTZI GUZTIAK. DEKORA ITZAZU ERROTULADOREZ

MARRAZTU EDALONTZIAK ETA GERO KALKULATU

1. TALDEA

GUZTIRA €





2. TALDEA

GUZTIRA €

1  = 2 €




EMAN DEZAGUN EDALONTZIEN ORDEZ, KAFEA EKOIZTEN DUGULA

OSA ITZAZU LAUKIAK ONDOKO HITZAK ERABILIZ: ONGARRIAK - LURRA - MAKINAK ETA TRESNAK

GU	KAFE-EKOIZLEAK	GARA
PAPER-ORRIAK 		DIRA
ARTAZIAK ETA KOLA-TUTUAK 		DIRA
ERROTULADOREAK 		DIRA
EDALONTZIAK 	KAFEA	DIRA

NOR DA NOR?

HUTSIK DAUDEN LAUKIETAN IDATZI: "ASKO" EDO "GUTXI"

	1. TALDEA	2. TALDEA
LURRAK 		
ONGARRIAK 		
MAKINAK ETA TRESNAK 		
	ENPRESA HANDIA	EKOIZLE TXIKIA



KAIXO, JUAN NAIZ ETA TXIAPASEN BIZI NAIZ, MEXIKON. NIRE FAMILIAK ETA NIK KAFEA LANDATZEN DUGU. MAKINA GUTXI ETA LUR GUTXI DAUKAGU, BAINA ORDU ASKO LAN EGITEN DUGU UZTA BILDU ETA HORREKIN JANARIA EROSTEKO, BAINA BESTERIK EZIN DUGU.

DIRUZ EROS DITZAKEGUN GAUZAK:

JANARIA

AUKERA DITZAGUN OINARRIZKOAK ETA EZINBESTEKOAK DIRENAK:

4

4 GURE ADISKIDE JUANEK ERE ASKOTAN ESATEN DU:

EZ DAQO
ESKUBIDERIK!

ZERGATIK ESATEN DU?

ZERTAN ALDATU BEHAR DA EGOERA?
ZER EGIN DEZAKEGU GUK?



— MERKATARITZA JUSTIZIAZ
IZENeko KANPAINAN PARTE HARTU

EGINKIZUNAK:

— MERKATARITZA JUSTUKO PRODUKTUEKIN ASKARI BAT ANTOLATU

— WWW.COMERCIOCONJUSTICIA.COM WEB-GUNEAREKIN KONEKTATU

ZAIN GAUZKAZUE!!!